

ASKATASUNAREN FORUAK: FORUAK ZER DIREN ETA ZER EZ DIREN

Oinarrizko arloan, zibikoan eta politikoan, hiritar guztion izendatzaile komuna dira foruak. Alta, gaur egungo konkistatzaileen kolaborazionistek, Nabarroa expoliatzen dutenek, Nabarroko Kutxa besterendu dutenek, euskararen aurka egiten dutenek, nabar sozietatea eta lurraldea zatitzen dutenek, hezkuntza eta osasungintza desmuntatzen dutenek, Nabarroko ura atzerrira eramateko urtegien eraikuntza sustatzen dutenek, Nabarroaren ekonomia atzerriko interesei subordinatzen dietenek, hedabide ez-sumisoak jazartzen dituztenek, nabar herriaren ondare kultural eta erligiotsua lapurtzen dutenek..., zirikoki ezkututzen dituzte beren buruak Foruen aterkiaren azpian, ongi baitakite ezen Foru hauek direla nabar sozietatearen botere-legitimitatea eta legalitatea errepresentatzen dutenak, hain zuzen ere beraiek tiranikoki bahitu eta monopolizatzen duten legitimitate eta legalitate hori bera. Honen inguruan badago xehetasun nabarmen bat: oraindik ere Foruen Monumentua inauguratu ez izana. Honek agerian uzten du ezen, zehazki, Askatasunaren eta Foruen ukatzea dela Nabarroko gako-auzi politikoa. Gaur egungo egoera xeheki aztertu ostean, aurkitzen dugu ezen egoera honen kausa legalitate legitimoaren ukatzea eta ezkutetzea dela, alegia, Foruen ukatzea eta ezkutetzea. Horrela, askatasunaren subordinazioa agerikoa izan arren, Foruak sinbolo ofizial bezala agertzen jarraitzen duten arren, Foru hauek nabar hiritartasunaren eskubide propio, zibil eta politikoak dira, etengabeki zalantzan jartzen diren horiek berak. Honek guztiak Foruen gorputz sozialak bizi duen egoera ezin larriagoa eta ezin ahulagoa erakusten digu, zeren-eta Foruak, gutxiespenak gutxiespen, hiritarrok autoantolatzeke eta gure askatasuna bermatzeko dugun oinarriak seguruenak baitira. Honela beraz, Nabarro osoko sozietatea – maila politiko, juridiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen – pairatzen ari den hondamenditik ateratzeko behar larriaren aurrean, Manifestu hau idatzi dugu.

Foru hitza *Forum* hitzarekin dago harremanetan, plaza publikoarekin. Hau da, herriak, batzartuta, arauak erabakitzen zituen lekuarekin, eta, aldi berean, arau hauen betetzea exigitzeko bertan lekutzen ziren epaitegiekin. Era berean, legitimitatearekin, legalitatearekin eta jurisdikzioarekin dago harremanetan. Esanahi honek espazio komun hurbila legalitatearen eta justiziaren edukiarekin parekatzen du, eta sozietate propioaren nagusitasuna ekartzen du, bai jarduera legislatiboaren gainetik eta bai jarduera exekutibo nahiz judizialaren gainetik. Horregatik esaten zaie *Foru* nabar sozietatearen eskubide zibil eta politikoei. Beren izateko arrazoi nagusia askatasuna da. Hau da Nabarroko Lege zibil, administratibo eta politikoen printzipio informantea, zein “pro libertate patria gens libera state” apotegma juridiko-politikoan zehazten baita. Foruak legalitate propioa dira. Legalitate inposatua beti izango da antiforala. Foruaren oinarria sozietate zibila eta bere askatasuna dira. Foruetan hertsiki lotzen dira askatasuna eta legalitatea. Foruak soberanitate zibikoaren manifestazioa dira eta hortik eratorritzen da nabar sozietatearen askatasuna, Estatu propioa, nabar aberria eta independentzia. Demokrazia zuzena presente dago nabar sistema juridiko osoan, hiritarren batzarretatik abiatuta, non berdintasuna praktikatzen baita hiritarren arteko harreman horizontaletan. Laburbilduz, Foruak nabar antolaketa edo sistema juridikoaren multzoa dira. Multzo honek hainbat arlo barnebiltzen ditu, lege politikoa eta konstituzionaletatik pertsonen arteko harremanak gidatzen dituen zuzenbide zibilerak. Konkista eta dominazioa bururaino eramanez ostean, 1620an azpiratu zen Nabar Estatuak. 1789an eta 1841an bere sistema juridikoaren instituzio estatalak desmantelatu ziren. Gaurdaino, konkista jarraia izan da. Alta, gertaera hauek guztiek ezin izan dituzte Foruak desagerrarazi. Foruek bizirik irauteko dute nabarren existentzia juridikoan, gure erresistentzia-borondatean eta berriro ere aske izateko dugun borondate hautsezinean. Aske izan nahi baitugu, gure eskubide propioak osoki exerzita ditzagun. Nabarroa europar Estatu bat da eta bere printzipio konstituzionalak Askatasunaren eta Independentziaren Foruak dira.

Orokorrean, zuzenbidea bi adar haunditan zatitzen da: zuzenbide pribatua eta zuzenbide publikoa. Alta, Foruetan ez da bereizketa absolutu hori existitzen. Horrela, nabar sistema juridikoan, zuzenbide zibila eta zuzenbide publikoa teilkatuta daude. Lehenik, jatorrizkoak diren eta oraindik ere indarrean dauden instituzio juridikoetan: alegia, batzarrean, auzalorrean eta auzolanean. Bigarrenik, Nabarroko Kode edo Konpilazio zibilean, Nabarroko Zuzenbide Administratiboan. Eta, hirugarrenik, nabar Zuzenbide politiko eta konstituzionalean. “Lehenago legeak ezi erregeak”. Nabarroan Askatasunek eta Legeak boterea eta hautagai zen erregea baino. 1528ko Foru Murriztuko prologoak honela dio: “Gure arbasoek pertsonarik justuena eta ohitura hobereenez eta bertute haundinez jantzia hautatzen zuten errege, zeren-eta ongi baitzekiten ezen, jende boteretsuenak jende pobreena menderatuz gero, jende pobrea kaltetik libratuko zuen helegitea behartuko zela”. Foru Murriztu bereko bigarren kapituluak honela adiarazten du: “erregearen hautatzea eta aldatzea herri eta kontseiluek burutzen zuten”. Aurretiaz, Foruen defentsa, eguneratzea eta hobekuntza zin eman behar zizkion erregeak “Nabarroko herri osoari”.

Era berean, Nabarroko Foruen parte dira traktatu internazionalak, Nabarroko Gorteeke beste estatuarekin adosten zituztenak. Nabarroa harreman internazionaletan subjektu aktibo izatea bermatzen dute Foruek. Nabarroaren presentzia bermatzen dute traktatuen negoziazio eta akordioetan nahiz organismo internazionalen. Alta, gaur egun pairatzen duen konkista jarraian baita, Nabarroa subjektu internazional pasibo bat da. Hau argi gelditzen da, besteak beste, gaur egun indarrean dagoen 1856ko traktatuan. Traktatu honetan Frantziaren eta Espainiaren artean banatu zituzten, literalki, “bi Nabarroak”, Nabarroaren beraren interbentzioren gabe. 1841ean unilateralki lekualdatu zuten espainiar muga Ebrotik Piriniora. Nabarroko Gorteeke sendoki oposatu zuten neurri hau, 1829ko azken saioan argi gelditu zen bezala. 1856ko traktatua handik hamabost urtera sinatu

zen. Foruekin, erligioa ez zegoen frantziar eta espainiar eliza katolikoei hierarkikoki subordinatuta, ez bere ordenazioan, ez-eta karguen izendapenean ere. Orain ez da horrela jada, Nabarroaren konkista jarraiaeren garatu den heinean, maila erligiotsuan ere gertatu baita konkista jarrai hau. Foruek debekatu egiten dute ekonomia Nabarroetik ez gidatzea. Nabarroaren soberanitatea defendatzen dute: lurraldearen, uraren, mendien, meatzeen, ingurugiroaren, komunikabideen, txanponaren, aduanen, baliabideen, jarduera ekonomikoaren eta fiskalitatearen gainean. Foruek exigitu egiten dute ezen hezkuntza ez dadila atzerritar interesei subordinatuta egon. Sistema hezkuntzatiko osoa, eskolak eta unibertsitateak esaterako, nabar instituzioek bakarki onartu eta kontrolatu behar dute. Foruek Nabarroaren soberanitate osoa exigitzen dute osasungintza publikoaren eta pribatuaren gainean. Foruek debekatu egiten dute ezein nabar hiritar nabarra ez den ezein armadari arma-zerbitzua ematera behartua izatea.

Nabarroak bizi izan dituen konkista iraunkor eta ukatze jarraiak kontuan hartzen baditugu, hitzez nahiz armaz erantzun izan die hauei nabar abertzaletasunak, bai instituzioetan eta bai erresistentzia-ekintza desberdinetan. Nabar sozietateak 1893-1894 urteetako Gamazadan erdietsi zuen inoizko batasunik gorena bere askatasunen defentsan. Orain dela 120 urte izan zen. Mobilizazioarekin bat egin zuen mendebaldeko lurraldeetako nabar sozietateak: Araba, Bizkai eta Gipuzkokoak. Manifestazioen gaineko errepresioaren ondorioz hiru hil izan ziren. Alta, mobilizazio honek ez zuen lurralde horietako ahaldundien babesik izan, Madrilekin adostutako kontzertu ekonomiko baten ordainetan saldu egin baitziren. Nabarroak kataluniar herriaren berriazko elkartasuna izan zuen. Deskonkista ere mendebaldeko edo itsasaldeko nabarren deskonkistatik hasten da. Orduko hartan, 1841eko Legearen ostean gorde zen gutxi hori inautera erabaki zuen espainiar gobernuak. Berezi, ogasun publikoaren gaineko eta kupoaren kopuru aldaezinaren gaineko nabar soberanitatea inautera erabaki zuen. Nabarrak azken berrehun urteetako depresio ekonomikorik haundienean murgilduta zeuden. Aho batez irten ziren kalera. Guztien eskubide eta askatasunak defendatzeko orduan, agerian utzi zuten beren borondate kolektiboa. Nabar sozietateak konkista jarraia pairatu du. Konkista horrek sortutako salbuespen-egoeraren aurrean, insurgentziaren mugarrir nagusia da Gamazada. Alta, Gamazadako batasun horren ondoren, batasunaren haustura etorri zen, eta oraindik ez da berreskuratu. Garaikidetzako nabar sozietateak bere eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan ukandako jarrera goren haren ostean, inflexio behartu bat gertatu zen. Gamazadaren une hori mobilizazio orokorreko une bat izan zen. Nabar herriaren batasunik gorena izan zen, konkisten hasieraz gero bederen. Iruinea setio-egoera iraunkor batetan zegoen hiria zen. Gauetan harresiak itxi egiten ziren eta espainiar armadaren kuartelak barnean zeuden. Honek zailtasun haundiak eragin zizkion insurgentziari, baina Gamazadak guztiak gainditu ahal izan zituen. Horrela adiarazten du Oloritzek: "Arrisku komunaren aurrean, alderdikoieria-pasioak mututzen ziren, gorrotoak ezabatzen ziren, diferentziak desagertzen ziren, gertaeren larritasunak sinpatia eta maitasun korronte biziak eragiten zituen lur noble honetako seme-alaba guztien artean. Aberriaren bandera mehatxatuaz gain, ez zen beste banderarik altza, ez zen beste idolorik egon."

Orain betetzen dira 110 urte Foruen Monumentuaren eraikuntzatik. Monumentua benetako herritar babes baten ondorioz altxatu zen. Nabar herriak Nabarroaren askatasunarekiko eta bere legalitate legitimoarekiko zuen maitasunaren sinbolo bezala altxatu zen monumentua, konziente baitziren beren inportantzia transzendentalaz. Konstantzia hilezina utzi nahi izan zuten: ezen Foruak zirela beren askatasunak, eta horiek izan zirela batasun sozialaren kausa mobilizazio hartan. Honela adiarazten du monumentuan finkatuta dagoen brontzezko textuetako batek: "Monumentu hau nabarro gure askatasunen defentsan ukan genuen batasuna sinbolizatzen eraikei zen, bizitzak berak baino maitasun haundiagoa merezi duten askatasunen defentsan". Politikoki, nabar sozietatearen osotasunaren berreskuratze abertzalean, gailur-unea izan zen. Alta, handik gutxiara, nabar eskubide propioekiko ukatzaileak ziren ulerkerek estali zuten une politiko hori.

Nabarron egiazko borondate indibidual eta kolektiboa askatasuna izan da, eta horrela izan behar du beti. Askatasun hau legalitate propioan gauzatzen da: Foruetan. Foruak askatasuna, legalitatea eta independentzia dira. Hori ukatzen dutenak Foru txarrak dira, ilegalak, faltsuak eta inposatuak direlako. Gaur egun ere bai, garaiotako konkistatzaile jarraien bidez. Dialektika horrek talka bat barnebiltzen du: sozietate konkistatuaren eta konkistatzailearen dominazio estatalaren artekoa. Nabarroaren eta bere Foruen aurkako indarrek bere interesak kaltetuko zituen arrisku haunditzat jo zuten Gamazadako mugimendu abertzalea. Ondorioz, plan bat antolatu zuten berau desmobilizatzen. Eliza katolikoaren hierarkiak lagundu zuen kanpaina hori: espainiar autoritateekiko subordinazioaren eta obedientziaren mezua predikatu zion nabar herriari. Era berean, bultzada indartsua eman zitzaion kazetaritza zinikoari. Kazetaritza honek, nabartzaletasun faltsu baten itxuraren azpian, nabar herriaren apatia, autokonplexazioa eta subordinazioa ereiten ditu sistematikoki. Horrela, konkistatuaren sindromea barnatzea lortzen du, eta konkistatuak konkistatzailearekiko konplizitatea garatzen du. Ezkabako kuartelen eta gotorlekuaren eraikuntzak militarizazio iraunkorra ekarri zuen. Aldi berean, barne-desorientazio eta barne-desmobilizazio bat gertatu zen. Nabar abertzaletasun zibikoa abandonatu egin zen, interes alderdikoen mesedetan. Orduan, nabar batasun sozialaren haustura bat gertatu da. Haustura honek posible egin du eskubide eta askatasun desagitea. Hau da, eskubide eta askatasun indibidual nahiz kolektiboen desagitea, eta eskubide eta askatasun sozial, ekonomiko, politiko, linguistiko nahiz kulturalen desagitea. Horrela gertatu izan dira, gero, 1927ko Hitzarmena, 1936ko holokaustoa eta azken hamarkadetako ustelkeria ekonomiko eta politikoa, antinabarra, antieuskalduna eta antiforala.

Paktuaren iruzurra, edo inpostura forala, erregimen foral hitzartua ere esaten zaiona, fraude erraldoi baten gainean etzaten da. Fraude horri azpiratuta gaude konkistatuok. Fraude horren funtsa sozietate honen eskubide politikoak esentzia pseudo-foral intangible batzuek suplantatzea da, zeinak, konkistatzaileen aburuz, hiritarron erabakimen asketik at baitaude. Iruineko Ahaldundiaren Jauregian bertan, orain Nabarroko Gobernuaren esaten zaion horretan, ez dira Nabarroko Parlamentuak onartutako legeak betetzen, eta are, espainiar Epaitegi Konstituzionalean helegitea aurkezten zaie. Inoiz ikusi gabeko faktua hau agerian dago jada. Erka dezagun 2013ko Nabarroko Gobernuaren gaur egungo jarrera antiforala 1893ko Nabarroko Ahaldundiaren hitzekin. Erkatze honen egitea determinantea da gaur egun bizi dugun ataka estutik irten gaitezen. Honela zioen 1893an Nabarroko Ahaldundiak: "Ahaldu bezala eta nabar bezala eta (...) [Nabarroan] indarrean dagoen legiazioa gorde eta defendatzeko (...) emandako zinarekin betetze justu eta beharrezko bati begira (...) [Foruak abolitzen dituen] lege-proiektuaren (...) paragrafoaren onarpena ezeztatu dezatela [espainiar Gorteek]". Era berean, Sanz lehendakari ohia Nabarroko Kutxa desagertarazi zuten bilera-dieten kobratze ilegítimoan parte hartu izanagatik inportatu zutenean, agerian geratu zen berriro ere inpostura pseudo-forala: lehendakari ohiak esan zuen Nabarroko Banku publiko horrek erregimen foralarekiko zeukan lotura "estilo-klausula" bat baino ez zela. Iraunkorki kentzen diote soberanitatea nabar sozietateari. Konkistatzaileen eta konkistatuaren arteko subordinazioan sakontzen dute. Konkista jarraia ondo bezala, hitzarmen foral izendatzen den horren bidez kamuflatu zen subordinazioa, eufemistikoki. Alta, errealtatean, Gaztela-Espainiak Nabarroaren gainean duen harreman desorekatua estaltzea da hitzarmen foral horren helburua. "Hitzarmen" esaten zaien horiek iruzur bat dira, ez baitira inoiz existitu, ez 1841ean, ez 1876an, ez 1927an, ez-eta 1982an ere. Nabarroko Gorteek ez zuten nabar sistema juridikoaren abolizio unilateralean parte hartu. Ez aurretik, ez ondoren, nabar herriari ez zaio inoiz galde egin honen inguruan. Nabar kupoaren ustezko pribilegio ekonomiko bat omen da. Espainiar hiritargoarekiko solidaritate fiskalaren gainean kaltea eragiten omen du pribilegio honek. Hau mito bat da. Hau gezur handi bat da, Nabarroari bere foruak Francok – gerran lagundu izanagatik – eman zizkiola esaten zuen hori bezalakoxea. Gezur honen bidez benetako errealtatea ezkutatu nahi da: Frantziak eta Espainiak Nabarroari eragiten dioten expoliazio sistematikoa. 1512ko inbasioaren ondoren, Nabarroak "dohaintza" bat eman behar izan zion espainiar monarkiarri. Gero, 1841ean, espainiar Estatuari ematen zitzaion kupo "aldaezin" bilakatu zen "dohaintza" hori. Alta, beranduago, espainiarren berek eraldatu zuten kupoaren, beren lege propioa hautsiz. Batez ere 1927an gertatu zen, Primo de Rivera diktatorearen presio eta mehatxuen azpian. Nabarroak, botere politiko ezarriaren arloan, expoliazio eta ustelkeria ekonomiko sistematikoa bizi du. Honen kausa eksklusiboa nazio konkistatu bezala bizi duen egoera da. Gaur egungo nabar sozietate konkistatuak sufritzen duen subordinazio irrationalaren eta babesgabatasunaren autoreak gaur egungo konkistatzaileak dira, "Estatu-Auziaz" hitz egiten duten ber horiek. Kupoaren kalkulua puztutako koefiziente bat aplikatuz egiten da. Koefiziente honek okerki goratuta finkatzen du Nabarroak espainiar Estatuaren osotasunaren baitan duen aberastasun totala. Honen emaitza, praktikan, konpentsaziorik gabeko harrapakatze fiskal flagrantea da. 1982tik aurrera, botere politikoek Hitzarmen ekonomikoaren onarpenetik margintatu dute Parlamentua. Horretarako, aitzakia bat errepikatu izan dute, hitzarmen hori "Estatu-Auzi" izatearena. Era berean, azken hogeita hamar urteotan Nabarro Garaiari inposatu dioten izen ofiziala, alegia, "Komunitate Forala", inkongruentzia izateaz gain, nabarroko iraina da. "Komunitate" eta "Foral" kontzeptuak antitetikoak eta kontraesankorrak dira Nabarroa bezalako sozietate politiko bati erreferentzia egiterakoan. *Foral* hitza *Foru* hitzaren kualifikatibo bat da, eta Foruak nabar Sozietatearen estatalitatea, soberanitatea, berdintasuna, pluraltasuna, demokrazia, legalitatea eta askatasuna adiarazten ditu. Esanahi hau guztiz desberdina da *Komunitate* kontzeptuarekiko. *Komunitate* kontzeptuaren gainetik dagoen beste plano batetan kokatzen da Forua. Horrela, Foru ilegal hauen guztien artean eklesiastikoak ere aurki ditzakegu. Izan ere, eliza katolikoak nabarroan Foruen aurka interferitu baitzuen 1200ean, 1512an, 1795ean, 1813an, 1893-1894an, 1936an... Espainiak eta Frantziak burututako erasoak babestu zituen elizak, modu ireki eta zalantzagabea. Horri gehitu behar zaizkio, noski, herriaren ondasun erligiotsuen harrapakatze eta salmenta garaikideak.

Askatasunaren edo Foruen Manifestu honen sinatzaileok urgentzia gorenkotzat dugu Nabarroak hitz egin dezan. "Navarra locuta, causa finita". Nabarroko gure soberanitatearen, askatasunen eta eskubide propioen benetako Foruak aldarrikatu, berreskuratu eta erabili behar ditugu. Maskaragabetu, ezereztu, indargabetu eta erauzi egin behar ditugu iruzurtiki *erregimen hitzartua* izendatzen den horren Foru faltsu eta gaizki izendatuak, baliogabeak baitira, konkista jarraietatik eratortzen baitira, eta dominazioa, subordinazioa, expoliazioa eta ukatzea besterik ez baitigute ekartzen. Horregatik, helburu horrekin, sozietate zibil osoari dei egiten diogu, inposatutako mugarik ez duen Nabarro osoko "gens libera" horri dei egiten diogu, autoantola dadin, konkistak eta zatiketak saihestu dituzan, eta bururaino eraman dituzan erabakitzen dituen ekimen askatzaileak. Adibidez, erabaki-eskubidea, petizio-eskubidea edo-eta Foruen Monumentuaren inagurazioa, berau baita nabar sozietatearen legalitatearen, konstituzioaren eta eskubide propioen errepresentazioa.

SINATZAILEAK:

Orreaga Fundazioa
Xavier Mina Nafarroako Ikerketa Historikoen Elkarte
Nabarra Aurrera Elkarte Kulturala
1512-2022 Nafarroa Bizirik Ekimena